

 www.muskiz.org

 /Muskizkoudala

 @muskiz

 @muskizkoudala



/ 31. aldizkaria
2019ko urria

BI-1640-2017 LG zk.



II.
Taldeduatloia

/5. orria

*Tenis eta padel
pisten estalkia
prest egongo da
udazkenean*

/2. orria

*Muskizko 37.
Nekazaritza
Azoka*

/3. orria

*El Malecón
zelaiak estalki
berria dauka*

/4. orria

*Burdinmendi
Bide Berdeak
saria jaso du*

/6. orria

Editoriala

Muskiztarrekin konprometituta

Ahalegin handia egin dugu herritarrekin hartutako konpromisoak betetzeko: ikastetxe berria, ibai ondoko pasealekua, elkarteak, hobekuntzak auzoetan, hiri antolamendua, jolasguneak, efizientzia energetikoa, igerilekuak, tenis eta padel pistak...

Konpromiso horietako asko dagoeneko oso aurreratuta edo, are, amaituta daude; beste batzuk, aldiz, abiarazten ari dira.

Muskizek aurrera egiten jarraitu behar du, eta, horretarako, une honetan, inbertsio-plan bat lantzen ari gara, hurrengo hilabeteetan martxan jartzeko. Jaso ditugun eta gauzatuko ditugun proposamenen artean, ekintza esanguratsuak daude; esate baterako, San Juliango errepidea asfaltatzea, jolasparke berria estaltzea, turismoa sustatzeko plana, Meatzari plaza eta inguruak estaltzeko proiektua egitea, Gazte lokalak... Halaber, auzoentzat hurbilagoak diren ekintza batzuk: bideak konpondu, altzariak jarri, saneamendua...

“Muskizek aurrera egiten jarraitu behar du, eta, horretarako, inbertsio-plan berri bat lantzen ari gara, ondorengo hilabeteetan martxan jartzeko

Gainera, kirol instalazioak eta Eguneko zentroa hobetzeko proiektuak egitea aurreikusten dugu, bai eta bizikletak garbitzeko gune bat edo Txakurgunea egitea ere, besteak beste.

Eskerrik asko guztioi, gure herria hobetzen laguntzeagatik.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Muskizek agenda bat argitaratu du gizarte zerbitzu komunitarioak ezagutarazteko

Muskizko Udalaren Gizarte Ekintza arloak agenda bat argitaratu du, 2019ko uztailatik abendura, zerbitzu komunitarioen barruan egingo dituzten jarduerak ezagutarazteko. Agenda hori udalerriko etxe guztietan zabaldu dute, eta bloketan banatua dago: adinekoen zentroa, berdintasuna, autonomiaren sustapena, mendekotasunen prebentzioa eta gazte eta helduentzako jarduerak. Agendarekin, udalaren asmoa da biztanleei ekintza eta tailer aukeren berri ematea.

Adinekoen Zentroan, jardueraz beteta egongo dira urria, azaroa eta abendua, hala nola El Crucero jubilatuen elkarteko dantza-egitaraua (larunbatetan), oroimenaren tailerra, bingoa, jarduerak udal kiroldegian, Begoñako Andra Mariaren omenaldia, elkarrizketak eta Jaiotza bizidunaren antzezpina. Gazteentzat, adikzioei aurre egiteko jarduera osasungarriak eta heziketa

afektibo-sexualari buruzko tailerrak izango dira urrian eta azaroan. Helduentzat, berri, herritarrei irekita dauden hainbat jarduera izango dira; batez ere, gurasoentzat eta hezitzaileentzat.

Aldi berean, agendan, etxekoak zaintzen dituztenentzako jarduerak ere badaude, esate baterako, mindfulness tailerra eta laguntza psikologikorako taldea, Adinekoen Udal Zentroan. Gainera, dinamizazioak egingo dituzte adikzioei aurre hartzeko programaren bidez, hala nola “Lagunekin baratzean” egitasmoa San Juan kolegioarekin, eta “Aprendiendo salud” Muskiz BHIrekin eta CF Somorrostorekin. Horiez gainera, jarduerak eta ekintzak izango dira familiek. Amaitzeko, berdintasunaren aldeko lanean jarraituko dute elkartasun jarduerekin, Beldur Barik ospakizuna, azaroaren 25eko jarduerak...

Tenis eta padel pisten estalkia prest egongo da udazkenean





Muskizko 37. Nekazaritza Azoka

Arrakastatsua izan da 37. Nekazaritza Azoka. Bertaratu zirenek parada izan zuten laurogeita hamar postuz baino gehiagoz gozatzeko, besteak beste, produktu hauekin: gazta, fruta, barazkiak, ogia, eztia, loreak, txokolatea, nekazaritzarako makineria, elikagai ekologikoak... Bertako ganadu erakusketaren sailean, bisitariek ehun buru baino gehiago ikusi ahal izan zituzten goizean; aldi berean, zaldi lehiaketan 37 buruk parte hartu zuten. Gainera, beste urte batez, Fernández Terremos harategiak txekor bat erre zuen, azokara joan ziren guztien gozagarri.

Protagonismorik handiena Txakolin Sariketa Handiak izan zuen. Upategiak hiru

sailtan lehia zitezkeen: zuria, beltza eta oilar-begia. Denera, hamar txakolin-ekoizle izan ziren, eta hogeita ardo mota baino gehiago eta sagardoa aurkeztu zuten. Aurtengo sarituak Txabarri upategia (ardo zuria eta beltza) eta Gatikako Etxebarria upategia (oilar-begi motako Sasines ardoa) izan ziren.

Ohiko nekazaritza eta ganadu sailen osagarri, aurten zaldi eta poni gaineko paseoak ere izan ziren, laukiaren barruan; hala, txikienek euren lehen osteratxoa gozatu zuten. Horretaz gain, San Joan enparantzako frontoian, Tokiko merkataritza sustatzeko XII. azoka izan zen egun osoan, udalerriko zenbait saltokiren postuekin.

Udal frontoiko lanak azken fasean daude



Ehiza, Arrantza eta Ingurumen azokak bisitari ugari izan zituen

Muskizko Udalak, beste urte batez, XIII. Ehiza, Arrantza eta Ingurumen Azokan parte hartu zuen; bisitari ugari izan ziren. Ingurumen Sailak hainbat jarduera egin zituen, hala nola familien ibilaldia, bihotz-biriketako bizkortze eta desfibriladorearen erabilera tailerrak (Muskizko Babes Zibilak emanak). Aurten, berriz ere Muskizko Nekazaritza Ekologikoko talde monitorizatu izan genuen gurekin, baita Zero Waste Muskiz ere. Gainera, Arraintxori klubak antolatutako hainbat jardueraz gain (hala nola Txakolin Eguna), beste hauek ere izan genituen: Ertzaintzaren txakur unitatearen erakustaldia, tiragoma lehiaketa, heriotzarik gabeko arrantza, basurde eta arroka-arrain dastaketa...

zatoz zortzigarren
mello Sarira
2019ko URRIAREN 12an



Pico Ramos inguruko bidea birgaitzea

Muskizko Udalak Pico Ramos inguruan dagoen bidea birgaitu du, zeinetatik hainbat abere-haztegitara eta landabidetara joaten den. Inbertsio horri esker, abere-haztegiatarako sarbidea bermatzen da, baita bertako biztanleek eta bisitariek erabili ohi duten biderakoa ere.



Hiru ikastetxetako mantentze lanak

Udal korporazioak 50.000 euro inbertitu ditu udan udalerriko hiru ikastetxetako mantentze eta zaharberritze lanak egiteko: Cantarrana, Ikastola eta MUSKIZ BHL. Egindako lan gehienak honako hauek izan dira: igeltserotza, pintura, iturgintza, zurgintza, beirateria eta garbiketa.



El Malecóneko hesietan babesaren ipintzea

Muskizko Udalak El Malecón futbol-zelaiko hesi eta eskailera eremuetan sarea jarriko du, erorikoei aurrea hartzeko eta ingurune horren segurtasuna hobetzeko; izan ere, herritarrek egunero bertaratu ohi dira.

IKASGUNE egitasmoaren luzapena

Muskizko Udalak, gizarte-zerbitzuen laguntzarekin, IKASGUNE egitasmoa sustatzen jarraituko du, 29.000 euro jarrita. Egitasmo horrek 2018an laguntza eman zien Ikastolako eta Cantarrana ikastetxeko 52 adin txikikori. IKASGUNE eskoletarako laguntza-zerbitzua da; horren bitartez, 6-12 urte bitarteko haurrei hezkuntza prozesu egokia bermatzen zaie, hezkuntza baliabide osagarrietan gabeziak baldin badituzte, zeinak kasu batzuetan desabantailan baitaude testuinguru sozia-laren aldetik.

Helburua da ingurune egokia sortzea, jarriak eta balioak bereganatzea, maila akademikoa sendotzea, euskararen erabilera sustatzea, autoestimua indartzea, familiak segimendu sozio-educatiboan engeiatzea, irudia berritzea, eta gazteei dinamiken bidez aisialdiaz gozatzeko eta gizarteko eragileekin harremana izateko aukera ematea.



El Malecón zelaia estalki berria dauka denboraldi honetarako

Muskizko Udalak El Malecón futbol zelaiko tribunaren estalkia berritu du; aurrekontua 35.000 euro ingurukoa izan da. Egindako lanak bi izan dira. Batetik, xafla mehe berria jarri da; eraikina irekia denez, ez da beharrezkoa xaflak isolamendua izatea. Bestetik, egitura zaharberritu da. Estalkia berritzeaz gain, azken urte hauetan beste hainbat jardura egin dira, El Malecónerako irisgarritasuna eta bertako instalazioak hobetzeko.



Burdinmendi Bide Berdea II. Taldeduatloia

Muskizko Udalak laguntza emango dio Burdinmendi Bide Berdea Taldeduatloia kirol probaren bigarren ekitaldiari. Probak antzinako meatze-trenbidea zeharkatuko du, Traslaviñatik (Artzentales) Pobeñara. Enkarterriko Landa Garapenerako Elkarteak antolatu du, udal hauen laguntzarekin: Artzentales, Galdames, Sopuerta, Abanto-Zierbena eta Muskiz. Duatloia 2019ko azaroaren 3an izango da, igandean, eta taldeka 74 kilometro egitean datza. Horietatik, 37 kilometro txirringuluarik egingo ditu eta beste 37 kilometroak korrikalariak; lasterketa, esan bezala, taldeka izango

da, eta bi txandek ibilbide bera egingo dute, Bezik Pobeñaraino. Lehen parte-hartzaileak 37 kilometro egin behar ditu bizikletan; bigarrenak, 15 lasterka; hirugarrenak, 14 kilometro modu berean; eta laugarrenak 8 kilometro, horrela ibilbide osoa egin arte. Parte hartzeko interesa dutenek webgune honetan eman behar dute izena: www.taldeduatloia.eus. Gehenez ere 120 taldek har dezake parte; beraz, gehieneko parte-hartzaile kopurua 480koa izango da. 16 eta 18 urte artekoak ere har dezakete parte, baina aldez aurretik gurasoek edo legezko tutoreak sinatutako baimena aurkeztu behar dute.

Udal WiFi sarea zabaltzea, WiFi4EU-ren ekimenari esker

Muskizko Udalak EBren (Europar Batasuna) 15.000 euroko dirulaguntza lortu du Udal WiFi sarea instalatu eta zabaltzeko, WiFi4EU-ren ekimenari esker. Dirulaguntza honekin, gaur egungo sarea zabalduko du Udalak; izan ere, gaur egun, biztanleek bederatzir eremutan bakarrik nabiga dezakete; hala, hainbat auzotara doako sarea eramaten lagunduko du. Zabaltze horren bidez estaldura handiagoa eman ahal izango da, eta, gainera, teknologia berriak helaraziko zaizkio herritar kopuru handiagor bati; laster jakinaraziko da zein puntutan izango duten hemendik aurrera estaldura. Komunikazio sarea zabaltzearekin, zaintza sistemaren sostengua eta segurtasuna ere handitu egingo dira.



M MUSKIZ KULTURA AGENDA

19 URRIA

Euskal Eskontza

Antolatzailea: Jarraitzen Dugu

13 ABENDUA

MEATZARI ARETOA

Concierto

Bilboko Korala

31 URRIA

MEATZARI ARETOA

Mixed Choir Pa Saulei

Nazioarteko abesbatza kontzertua

20 ABENDUA

MEATZARI ARETOA

The Upper Room

Gospela

16 AZAROA

MEATZARI ARETOA

José Luis Nieto (pianista)

Musika eta umore zikloa

21 ABENDUA

MEATZARI ARETOA

Gala anual

Emakumeen Elkarte

23 AZAROA

MEATZARI ARETOA

Mandibula Afilada

Musika eta umore zikloa

24 ABENDUA

Olentzero

29 AZAROA

MEATZARI ARETOA

Mari eta gailera fabrika

Antzerkia euskaraz

27 ABENDUA

MEATZARI ARETOA

Concierto de Navidad

Antolatzailea: Jarraitzen Dugu

30 AZAROA

MEATZARI ARETOA

El Enjambre

Musika eta umore zikloa

31 ABENDUA

Subida a Mello

Ibilaldi herrikoa



Elkarrizketa



Burdinmendi Bide Berdeak Europako sari bat jaso du

Burdinmendi Bide Berdea elkargune bilakatu da pasearientzat, kirolarientzat eta familientzat. Hala, paraje natural hau leku berezi bihurtu da eta Europa mailan erreferente izatera heldu da. Bide berdeak 42,5 kilometro ditu, garai bateko meatze-trenbidean zehar doazenak, eta herri hauek zeharkatzen ditu: Artzentales, Galdames, Sopuerta, Abanto-Zierbena eta Muskiz. Monica Alonsok, Enkarterrialde Enkarterrietako Landa Garapenerako Elkartearen koordinatzaileak, Bide Berdean barneratuko gaitu.

G/ Zer esanahi dauka sari honek Enkarterrialde elkartearentzat? Zertan datza sari hau?

E/ Europatik datorren aitortza hau sari bat da Enkarterrirako; bultzada handia da bidearen eta gure eskualdearen alde lanean jarraitzeko, erakunde publikoen eta

“Sari honek bultzada ematen du bidearen alde eta eskualdearen alde lanean jarraitzeko

pribatuen arteko elkarlanean. Sariarekin, batez ere, dinamizaziorako eta sustapenerako ekimen sail bat saritu dute, hala nola bide berdean egin daitezkeen kirolei lotutako ekimenak, ohitura osasungarriei lotutakoak, gure meatze-historiaren transmisioari lotutakoak eta ondare naturalari lotutakoak.

G/ Esan al daiteke Bide Berdea nazioartean erreferente gisa kokatu dela?

E/ Europako Bide Berdeen Elkarteak ematen duen sari garrantzitsua da, bi urtean behin banatzen duena 2003tik, eta bikaintasuna eta jardunbiderik onenak erakusten dituzten proiektuak laguntzen ditu. Nahiz eta sariak diru saririk ez ekarri, bide berdea ikusarazten du, baita zeharkatzen dituen herriak ere.

G/ Zein jardueraren bidez ari zarete bide berdea dinamizatzen?

E/ Jarduera nagusiak “Bide berdetik igandek” txango osasungarriak dira, “Ondare” jarduera, “Taldeduatloia” kirol ekitaldia, baita “Bide berdearen enpresa lagunak” egitasmoa ere, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eremuan hamabi ostalaritza establezimenduren parte-hartzea dutena. Horien guztien helburua eskualdearen ondarea eta produktuak ezaugaraztea da.

G/ Zein helbururekin jaio zen ekimen hau?

E/ 2017an jaio zen, elkartearen eta udalen arteko lankidetzaren hitzarmen baten bidez, zertarako eta, elkarrekin lan eginez, Bide Berdea Enkarterrin aberastasuna eta enplegua sortuko dituen produktu bihurtzeko. Eta haren jomuga da etorkizunean gure eskualdea egituratuko duen eta ekonomikoki dinamizatuko duen ardatz nagusia izan dadin lortzea.

50 argazkik parte hartu dute udalerrria sare sozialetan bultzatzeko kanpainan

Udaldian, udalerrriaren argazki bilduma bat egiteko helburuarekin eta aurreko urteko kanpainak izan zuen erantzun ona ikusita, Muskizko Udalak herritarren partaidetza proiektua bultzatu du, sare sozialen bitartez herriko leku eta paraje naturalen argazkiak parteka ditzaten, #GureMuskiz2019 etiketa erabiliz. Udako kanpainaren ondoren, bertako biztanleek eta bisitariek egindako 50 bat argazki bildu dira, hainbat parajetakoak. Irabazleek Musika eta Umorea jardunaldietarako abonamendua jasoko dute. Hautaketa egiteko, zozketak egin dira, bat Facebook bidez, beste bat Twitter bidez eta beste bat Instagram bidez. Irabazi duten irudien egileak hauek izan dira: Igor Alonso, @makymorsa eta @letimuskiz.

